

Gesto por la Paz

BAKEA, bide bakarra. Sin violencia ni amenazas Comunicado final. Manifestación, Bilbao, 30 de enero de 2010

Esta sociedad ha demostrado que el único camino que quiere transitar en la construcción de su convivencia es el de la paz y la libertad. Quienes aún siguen practicando y legitimando la violencia no tienen ningún resquicio para el equívoco. La violencia se ha convertido, incluso para quien la apoyan, en un ejercicio vacuo, sin esperanza y sin recompensa posible. Hasta sus ojos pueden ver, ahora, la gratuidad de las víctimas.

Es una tremenda responsabilidad, cuyo peso sólo puede ser aliviado por la decisión de abandonar definitivamente el ejercicio violento. Seguir asesinando y extorsionando hasta que se consuma la decadencia, el deterioro y la degradación de la banda terrorista ETA no es más que añadir cobardía e indignidad a una historia ya de por sí siniestra. Y lo peor de todo, no es más que seguir sumando dolor y sufrimiento sin más expectativa que el propio dolor y sufrimiento.

Durante décadas, ETA nos ha ido cercando con una alambrada eléctrica de amenazas. Para que el terror resultara cierto, ha ido prendiendo el alambre de espino sobre el nombre de sus víctimas. Como el año pasado, que cumplió sus nefastas coacciones en las personas de Eduardo Puelles, Carlos Sáenz de Tejada y Diego Salvá, tres personas que ya forman parte de nuestro dolor por haber encarnado el ataque dirigido contra todos nosotros y contra nuestra forma de convivencia. Pero es un dolor que nos refuerza en lo contrario de lo que lo provoca.

Hoy, el único camino es el de la paz. Y no tiene vuelta atrás. Aunque siga habiendo jirones de esa amenazante alambrada eléctrica, nuestra mirada ya está puesta en un horizonte más luminoso. La sociedad civil debe permanecer alerta y solidaria hasta ver cumplidos sus anhelos de paz y libertad. Y sigue siendo nuestra obligación exigir a todas esas personas que aún justifican la violencia un gesto de sinceridad consigo mismas para acabar con ese esperpento que, incluso para ellas, ya sólo se alimenta de dolor gratuito.

Porque, mientras el camino se libra completamente de violencia y amenazas, estamos decididos a transitarlo cargados con la esperanza necesaria para conseguir la paz que nos pertenece.

Gesto por la Paz

Bakea, bide bakarra. Sin violencia ni amenazas

Azken Komunikatua. Manifestazioa, Bilbao, 2010eko urtarrilaren 30a

Gure gizarteak ondo erakutsi du elkarbizitza eraikitzeko erabili nahi dugun bide bakarra bakearena eta askatasunarena dela. Indarkeria erabili eta babesten dutenek ezin dute nahas-mahasean ibili. Izan ere, indarkeria itxaropenik eta saririk izango ez duen ekintza soila bihurtu da, baita sostengatzen dutenentzat ere. Euren begiek, orain, ondo erraz ikus dezakete biktimei eragindako alferrikako mina.

Sekulako erantzukizuna dute, eta zama hori indarkeria utziz arindu dezakete. ETA talde terroristaren gainbehera, hondamena eta degradazioa guztiz bete artean hiltzen eta estortsioa egiten jarraitzea ez da besterik berez zorigaiztokoa den historia bati koldarkeria eta gizatzarkeria gehitzea baino. Eta txarrena zera da, oinazea eta mina barreiatzen dutela, oinazea eta mina helburu bakarra dutelarik.

Luzaroan, ETAk mehatxuz jositako alanbre-hesi elektriko batez inguratu gaitu. Izua eta ikara pizteko, bere biktimen izenen ganean elorri-arantzak erre ditu. Iaz, esaterako, bere eraso nazkagarriak burutu zituen hiru pertsonen kontra. Berauek badira, jadanik, gure minaren zati, gu guztion kontra egindako erasoaren biktimak direlako: Eduardo Puelles, Carlos Sáenz de Tejada eta Diego Salvá. Alabaina, haiek eta gure min berri honek indarra ematen digute injustiziaren aurrean.

Gaur egun, bakea da bide bakarra. Eta ez dago atzera bueltarik. Nahiz eta alanbre-hesi elektriko horren ziztadak jaso, gure begirada zerumuga argitsuago batean dago jarrita. Hiritarrok erne eta solidario ibili beharko dugu, harik eta bakearen eta askatasunaren egarria beterik sentitu arte. Eta badugu zeregin handi bat: indarkeria justifikatzen duten horiei, euren buruarekin zintzotasun une bat exijitu behar diegu, esperpento honekin behin-betiko bukatzeko, eurentzat ere, alferreko mina baino ez dakarrena.

Gure bide hau mehatxuetatik eta indarkeriatik libre geratzen den bitartean, dagokigun bakea lortzeko itxaropenez beteta ekingo diogu bideari. Horixe gure erabaki sendoa!